

DEIALDIAREN OINARRIAK**1. EDIZIOA****“JASANGARRITASUN GELA SARIA”****EKO-GELA****2025-2026 ikasturtea****1. Helburua**

"Jasangarritasun Gela" Sariaren helburua da ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren jasangarritasunari lotutako balioak eta printzipioak sustatzea eta aitortzea, EHUko Zuzenbide Fakultatean aurkeztutako Gradu Amaierako Proiektuetan (GrAP) eta Master Amaierako Proiektuetan (MAP).

2. Parte-hartzea

Sarian parte hartu ahal izango dute 2025-2026 ikasturtean GrAL edo MAL aurkezten duten Zuzenbide Fakultateko ikasleek.

3. Objektua

Sariaren objektua da ikasleek 2025–2026 ikasturtean aurkeztutako GrAL edo MAL proiektuak, haren edukia eta kalitatea balioestea.

4. Zuzendaritza akademikoa

Lanak Zuzenbide Fakultateko irakasle eta ikertzaileek zuzenduko dituzte. Kanpoko pertsonen zuzendaritza partekatua onartzen da, betiere Fakultateko irakasle edo ikertzaileek gonbidatuta.

Aurkeztutako lanak zuzendariaren bermea izan beharko du, eta honek bere rol akademikoa eta aholkularitza lana mantenduko ditu prozesu osoan zehar.

5. Gaiak

Lanak jasangarritasunarekin lotutako gaiak jorratu beharko dituzte, modu zuzenean edo zeharkakoan, Zuzenbidearen edozein adarretatik.

6. Modalitateak eta sariak

Bi modalitate ezartzen dira:

- A modalitatea: Gradu Amaierako Lanak (GrAL).
- B modalitatea: Master Amaierako Lanak (MAL).

Deialdi honek sari bana emango du modalitate bakoitzean. Sariak GrAL edo MAL beraren garapena Jasangarritasun Gelaren esparruan egitea izango du helburu, gelarekin lotutako curriculumeko edo curriculumetik kanpoko praktikekin uztartuta. Praktika horiek lanaren prestaketa prozesua aberasteko eta amaierako lanaren bikaintasuna sustatzera bideratuko dira.

Praktika horiek ordainduak izango dira: 1.800 euroko ordainsaria modalitate bakoitzeko (GrAL edo MAL).

Modalitateetako bat hutsik geratzen bada, epaimahaiak sari biak beste modalitateari esleitu ahal izango dizkio, aurkeztutako lanek kalitate eta merezimendu nahikoak badituzte. Horrela, bi GrAL edo bi MAL saritu ahal izango dira, aurkeztutako hautagaitzen maila akademikoaren eta balioaren arabera.

Saritutako lanak bereziki zabalduko dira Jasangarritasun Gelaren jardueren barruan, komunikazio, hitzaldi, kongresu, jardunaldi edo beste ekimenetan aurkezteko helburuarekin.

7. Balorazio irizpideak

Epaimahaiak honako alderdi hauek baloratuko ditu:

- Gaiaren egokitasuna jasangarritasunaren ikuspegitik.
- Lanaren kalitate akademikoa eta metodologikoa.
- Lanaren proiektzio soziala eta aplikagarritasuna.
- Lan- planteamendu juridikoaren zehaztasuna eta sendotasuna.
- Proiektuaren ikuspegiaren originaltasuna eta politika publikoen diseinuan, hobekuntzan edo ebaluazioan aplikagarriak diren proposamen berritzaileen sortzeko gaitasuna.

8. Epaimahaia

Epaimahaia honako hauek osatuko dute:

- Fakultateko hiru irakaslek.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun Departamentuak izendatutako eta pertsona aditu batek.
- Jasangarritasunaren arloan ibilbide profesional aitortua duen Zuzenbide Fakultateko ikasle ohi batek.

Epaimahaiaren erabakia irmoa izango da eta, egokitzen jotzen badu, edozein modalitate hutsik utzi ahal izango du.

9. Hautagaitzak aurkeztea

Hautagaitza bakoitzak dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

1. GrAL edo MAL-aren memoria/proiektua (eredu normalizatua).
2. Izena emateko fitxa (eredu normalizatua).

Bi eredu horiek Fakultateko webgunean egongo dira eskuragarri. Ikasleek dokumentazio osoa bidali beharko dute helbide elektroniko honetara: eko-gela.fac.derecho@ehu.es 2026ko urriaren 12a baino lehen.

10. Ebazpena eta sari banaketa

Deialdiaren ebazpena 2025eko urriaren 26a baino lehen argitaratuko da.

11. Jabetza intelektual eta hedapena

Egileek osorik mantenduko dituzte aurkeztutako lanen jabetza intelektualeko eskubideak.

Hala ere, saritutako lanak argitaratu ahal izango dira Jasangarritasun Gelaren eta Zuzenbide Fakultatearen hedapen-kanalen bidez, egiletza beti errespetatuta.

12. Oinarriak onartzea

Deialdi honetan parte hartzeak arau hauek guztiz onartzea dakar.